

noaua



"ERASOEI AURRE EGITEA GUZION LAN PERTSONAL ETA KOLEKTIBOA IZANGO DA"

Argazkian, jaietan izandako erasoak salatzen elkarretaratzea / 7

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Soka-dantzan Iñaki Urkia eta Aitor Egileta omendu zituzten / 09



NOAUA

50. Pilota Txapelketan Enrike Huiziren lana goraipatu zuten / 14



NOAUA

Erakustaldi bikaina eskaini zuten Herri Desafioan parte hartu zutenek / 20

Koro Seguroa 'Adiskide Numerario' izendatu dute / 17

"Aitor Pikabea NOAUA!ko ekonomialari ofiziala zen" / 17

begi•bistan

begi-bistan.com

INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT HAIN DIBERTIGARRIA IZAN

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77
info@begi-bistan.com



ERRESERBATU
HEMEN

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK


943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



•eguneko menua • karta • pintxoak • bokatak • plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Festen lekukoa hartu du Udajolasek

Aurten jaiak astelehen gauean amaitu direnez, asteartez ekin zaio NOAUA! Kultur Elkaratek eta Usurbilgo Udalak antolatutako Udajolasi. Inoizko parte hartzaile gehien izango ditu aurtengo edizioak; 200 partaideko muga gainditu da, 4-12 urte arteko 209 gaztetxok izena eman du aurtengoan. Izen-emate datuak zikloka xehatzen baditugu, Haur Hezkuntzatik 74 izan dira izena eman dutenak, 135 Lehen Hezkuntzatik. Haur Hezkuntzan



Argazkian ageri den hezitzaile talde hau arituko da lanean aurtengo Udajolasen. NOAUA

hamaika talde osatu dira eta 12 laguneko lan taldea. 14 talde Lehen Hezkuntzan, hamaisei laguneko taldea arituko da

haiekin lanean. Haiek guztiak dituzue albiste honi atxikitako irudian. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak eskainitako

formazioa jaso dute asteotan, besteak beste, etorri berriekin bertako hizkuntzan nola sartu, hori dena kudeatzeko.

Garbigune mugikorra, Kalezarrera

Uztailaren 6tik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da astebetetz. Era honetan, etxe hondakin berrerrabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Uztailaren 13an osteguna, garbigune mugikorra Kaxkora eramango dute.

Euskarako eta aisialdiko dirulaguntzak

Uztailaren 7ra arte bideratu ahalko dira dirulaguntza eskabideak usurbil.eus web orrialdearen bidez edota udal erregistroan.

Deialdia ikasturte honetan euskara ikasten aritu edota aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenei zuzendua dago.

Datorren astelehenean, odola emateko aukera

Izatez uztailaren 3an egokitu zen odol-ematea, jaiak tarteko, hilaren 10ean izango da, ohi bezala, 16:30-20:30 artean Udarregi ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

Orbeldi dantza taldean izena emateko garaia

2023-24 ikasturterako matrikulazio garaia zabalik jarraitzen du. Izen-ematea online egin daiteke. Orbeldiren sare sozialetan dituzue horretarako estekak.

Bestela, hauxe duzue Orbeldirekin harremanetan jartzeko email helbidea: orbeldi.udt@gmail.com

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

Biharrek inoiz ez daki (10)

Herriko arropa-denda bakarrean hasi nintzen zentzua ematen bidean ikasitakoari, gogoan hartutako guztiari. Zorakeria-uneak izan ohi dira katarsi momentuak, eta ondorenean, barealdia iristen da. Arnasa sakon hartu eta ingurura begiratzekoa.

Erretiroa hartzeko askorik geratzen ez zitzaion andrea zen dendari. Sartu bezala sartuta, poliziarri hots egin behar ote zion ere pentsatuko zuen. Segituan uxatu zituen halako burutazioak arropa erosiko geniola esandakoan kartera patrikatik aterata. Ez zen dirua genuela adierazteko, baizik eta ez zedin gehiago busti. Kamiseta bana eta azpiko arropa erosi genituen. Berogailuari pega-pega, berokiak eta jertseak lehortzen ziren saltzailearen kortesiaz. Salda berora ere gonbidatu gintuen galtza pare bat erosiko geniola esandakoan.

Nora zoazte, gazteok?

Bere herrira eraman nahi nau ezagutu dezadan. Usurbilera, ezagutzen duzu?

Inprobisazio-ariketa zoroa agortzen zihoan pixkanaka. Joan Usurbila, joan ilargira, joan dena hankaz gora jartzera, joan munduaren amaierara eta handik, unibertsoaren azken txokoraino, eta bukaera jarriko zitzaion. Bukaera bukatzea nahi ez nuenari, bidaiari.

Errepide ertzeko marra zuria jarraikiz, Pirinioen ertzetik hurbiltzen joan gintzaizkion Kantauriari. Diskrezioz, hark ikusterik nahiko ez bagenu bezala. Itsasoa ikusteko gogoak zenituen, itsasora joatekoa, oinak ur haietan bustitzekoa, eta azeleragailua zapaltzeko eskatzen zenidan. Nire baitan, oraindik gehiago nahasi nahi nuen bihurtune eta sigi-saga haietan, zuhaitz bakoitzaren historia kontatu, haizeak zamatzen zituen kontu zaharrak zure belarrietara itzuli. Zuk arrainak nahi zenituen oin artean, azal hila jaten duten horietakoak. Eraberritzea.

Bihar. Deskantsa dezakegun helmuga deitzen dugun hori kontenplatu daitekeen tokiren batean.

Ze? Ugaiz, garbi hitz egin.

Autoa gelditu nuen bide bazterrean. Abiatu ginenetik hiru egun pasa ziren eta inebitablea zen momenturen batean

autoa hartu eta buelta erdia hartuko zenuela Bartzelonara itzultzeko. Nik egoskorkeria hutsez itxaronaldia luzatu nahi nuen, pentsatu gabe hura ote zen zuk nahi zenuena, ahal zenuena, espero zenuena.

Zure ondoan iratzarri nahi dut beste behin ere, ahoskatzera iritsi nintzen erdi lotsaz.

Aurpegia laztandu ninduzun.

Asteartean egin behar dut buelta. Ordura arte daukagu gozatzeko denbora. Ez da lehen aldia denboraren kontra gozaten dugula, ezta?

"ZIGARRO BAT ERRE ZENUEN AUTOAN SARTU AURRETIK. AZKEN ETAPA GERATZEN ZEN"

Lehen agurra: aireportuko jende andanaren artean ordularia agortu arte egon ginen alboan. Kafea ez zegoen oso ona, baina bai irakiten. Horrek minutu gehiago eman zizkigun.

Hegazkineratzeko terminaletara sartzeko zeuden pertsonen ilara luzean jarri nintzen gogoaren kontra, baina lehenago gogor heldu zintudan: muxu iheskor bat ez nahikoa eta bi. Ez, hobe hiru.

Muxutan lokartu ginen bazterrak behe-lainoak ezkututzen dituen bailara heze batean. Hontzaren uluak entzuten ziren, eta izarren salda urdina jauzten zen zerutik eremua magiaz bustiz.

Zuri goizaldeko printzek busti zizuten bisaia. Kopetaren leuna, lehenik; gero izan ziren bekain marroi finak; sudur-punta eta matela borobilak, jarraian; ezpain gorri haragitsuak, hatz erakuslearen puntarekin laztandu nizekizunak; eta aurpegia mugatzen, kokotsa. Eguzki izpiak betazaletan itsatsi zitzaizkizunean, zabaldu zenituen begiak loreak ernatzen diren bezalatsu. Zure ile adatsetan endredatuta nituen hatzak, leunki. Goizeko ihintzaren dirdiraz egun onak opa eta egunsentiko muxutan sartu ginen izara pean.

Zigarro bat erre zenuen autoan sartu aurretik. Azken etapa geratzen zen.

Ziortzako kanpaldia martxan da

Ziortzako udako kanpaldiak martxan dira. Beste behin ere, Errioxako Peñaloscintosen izango dira gazte usurbildarrak. Kanpalekuaren muntaian guraso talde batek hartu zuen parte eta kanpaldiaren amaieran ere, laguntza premian izango dira.

NOAUara igorritako idatzian datoz xehetasunak: "Gogorazazi nahi dizuegu kanpaldiaren desmuntaiaren egunean ere zuen laguntza beharrezkoa zaigula, abuztuaren 5ean (larunbata) izango da. Parte hartzeko prest bazaude bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera zure izen-abizenak, telefono zenbakia eta kotxea ekarri dezakezuen ala ez adierazten. Gurasoekin batera gazteak ere etor daitezke".

Uztaileko ikastaroak KzGunean

Uztailean goizez zabalduko dute KzGunea, 9:00-13:00 artean. Hemen datozen ikastaroen berri:

Uztailak 6-7

9:00-11:00 "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean".

Uztailak 10-11

9:00-11:00 "Argazkiei ukituak eman zure Smartphonearekin".

Uztailak 12-13

9:00-11:00 "Editatu bideoak zure Smartphonearekin".

Uztailak 14-28

9:00-11:00 "Google Aplikazioak zure Smartphonean".

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net



Ekainaren 27an egin zuten legealdia antolatzeke ezohiko osoko bilkura. NOAUA!

Legealdi berrirako antolaketa malguagoa

Datozen lau urteotarako udal antolaketa definitu zuten ekainaren 27an egin zuten ezohiko osoko bilkuran.

Bi alkateordeak izendatu zizuten, udal taldeak osatu, batzorde informatzaileen antzera, Udalak gainerako erakunde eta organoetan izango duen ordekaritza ere definitu zuten, Tokiko Gobernu Batzarrekoa, dedikazioa izango duten karguak nortzuk izango diren ere erabaki zuten... Lau urtean behin, udal hauteskunde ondotik udalbatza osatu eta legealdi berria abiatzeko hartu behar izaten dituzten erabakiak dira horiek guztiak.

Malgutasunerantz

Aurreko legealdiko hamaikatik hirura murriztu dituzte batzorde informatzaileak: lurraldea, herritarrak eta antolaketa izenekoak. Azken aldian udal barruan bideratu duten hausnarketa prozesuaren harira dator. Bertan, udal egitura "zurrunetik malguagoetara" igarotzeko beharra identifikatu zuten, "koordinazioa erraztu eta eguneroko funtzionamendua errazte" aldera, alkateak zioenez. Udal politikak zeharlerroz jorratzeko hainbat udalek egindako

aldaketa honetara batzea beharrezkotzat jo zuten.

Ordainsariak

Batzorde gutxiago egin beharrik, egiten direnak iraupen luzeagokoak izatea ekarriko du. Horrek alde aurreko presaketan lan handiagoa eskatuko duela jakinda, dedikaziorik ez duten zinegotziek bilera bakoitzeko orain arte jasotako ordainsaria bikoiztea erabaki dute (lehen 50 euro jasotzen zituen zinegotzi bakoitzak, aurrerantzean 100 euro). Gainerakoan, aldaketarik ez: udalbatzar eta tokiko gobernu batzarretan parte hartzeagatik, orain arte bezala, 50 euro jasoko ditu dedikaziorik ez duen zinegotzi bakoitzak. Udal talde bakoitzak zinegotzi kopuruaren araberrako eta talde bakoitzari dagokion kopuru finkoa jasoko du. Aurreko legealdian bezala, dedikazio osora jardungo dute alkateak eta bi alkateordeek eta EAJ-ko zerrendaburuak dedikazio erdira. Komunikazioaz arduratuko den langilea izaten segiko du Udalak.

"Atzerapausorik ez LGBTI+ pertsonen eskubideetan"

Ekainaren 28ko Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunaren harira, adierazpena adostu eta plazaratu zuten udalbatzako hiru talde politikoez bezperan egin zuten ezohiko osoko bilkuran. "Hainbatetan esan duguna errepikatu nahi dugu: Harro gaudela gure bizitzek, harro gure bizi historiaz, harro LGBTI+ mugimenduaz".

Oraindik egiteke asko dagoela ohartarazi zuten. "Eraso LGBTI+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude". Testuinguru horretan, "lortutako apurra ezabatzea etorri nahi duten indar ultrakontserbadore eta faxisten aurrean as-

katasunaren aldeko horma bat eraikitzeke konpromisoa da gurea. Kalean eta instituzioetan".

Lankidetzaren sustapena

Ezinbestekotzat jotzen dute antolatuta eta borrokatzea. "Horregatik guztiagatik, udaletik bultzatu egin nahi dugu herrian LGBTI+ mugimendua sortzea eta bertan parte hartu nahi duen pertsona ororekiko konpromiso irmoa adierazi nahi dugu. LGBTI+ mugimenduen eta instituzioaren arteko elkarlana sustatzeko konpromisoa hartzen dugu". Xedeokin; "LGTBI+ politikak eraikitzeke eta faxismoari aurre egiteke ezinbestekoa da gisa honelako gune eta elkarlanak sortu eta sustatzea. Lege gehiago, baliabide gehiago, espazio gehiago".

2024ko jai eguna eta hauteskundeetarako mahaikideak

Uztailaren 23ko Espainiako Gorteetarako hauteskunde egunean lan egitea egokituko zaien herrikideak zozketa bidez hautatu zituzten ekainaren 27ko osoko bilkuran. Eguntan jaso dituzte jakinarazpenak Udaltzaingoaren bidez. Gogoan izan, zortzi hautesleku osatuko dira hilaren 23an, ohiko tokietan; hiru mahai Udarregi ikastolan, bi mahai Haur Eskolan, mahai bana Aginagako eskolan, Santuenea auzo elkartearen eta Zubietako Lanbide Eskolan.

Bestalde, hilaren 20ra arte luzatu dute posta bidez bozkatzeko epea, hilaren 13ra arte eskaera bideratzeko Correo bulegoan. Ostegun gauerdian honetan abiatuko da hilaren 21era arte luzatuko den kanpaina.

2024an, uztailaren 2a jai

Aurten uztailaren 2a igandek egokitu denez, biharamuna, hilaren 3a izan da Usurbilgo jai eguna. Datorren urtean, 2024an ordea, asteartek izango da eta aurten ez bezala, urtebete barru, hilaren 2a jai izango da udalerrin honetan. Hala erabaki zuten aho batez udalbatzak, ekainaren 27an egin zuten osoko bilkuran. Urtero, hain zuzen, udalbatzari dagokio urtero udalerrin mailako jai eguna izendatzea. Udalerrin guztiek hautatzen dute halako jai egun bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialde mailako beste jai egun bat izendatzen du; ohi bezala, 2024rako ere uztailaren 31 hautatu du. Gainerakoak, Eusko Jaurlaritzak finkatzen ditu.



Jaiak abiarazi zituen gazte mugimenduko ordezkariak, udalbatzako kideekin batera. NOAUA

Jaiak hasteko ohore bikoitza gazte mugimenduarentzat

Usurbilgo gazte mugimenduak izan du aurtengo herriko festak abiarazteko ohorea.

Ziortza gazte elkarte, Gaztelekua, Ernai, Xauxar Txosna Batzordea, Aztarrika Gazte Asanblada eta Kafe Tertulia neska* gazteen talde feminista. Izen-abizenekin eragile hauek guztiak, bestela esanda, Usurbilgo gazte mugimenduak izan du aurtengo herriko festak abiarazteko ohorea. "Urte luzeetan egindako lanaren aitortza moduan ikusten dugu. Izan ere, bakoitzak bere esparru eta txikitasunetik etengabean ari baikara herria egunerora eraikitzen", adierazi zuten udaletxeko balkoitik ekainaren 29an festen hasiera

ekitaldian. Horren erakusle jarri zuten eraikitzen ari diren Elkargunea. "Bizirik gaude, indartsu gaude, asko gara baina gehiago izan nahi dugu, askoz gehiago, indartsuagoak, anitzagoak eta bateratuagoak".

"Harro egoteko moduko gazteria du Usurbilek"

Aurretik, bigarren zuzen berria izan den alkateak hartu zuen hitza, egunotan "herrietik eta herriarentzat eginiko" jaiok ahalbidetu dituzten guztiak eskertzeko. Gogoan hartu zituen berriki joandako usurbildarrak, erasorik gabeko jaiak

aldarrikatzearekin batera. Eta noski, Usurbilgo gazteria go-raipatu nahi izan zuen Agurtzane Solaberrietak. "Usurbilgo gazteria definitzen duen ezaugarri bat bada konpromisoa, herrigintzarako ilusioa eta aktibismoa. Azken bolada honetan, gainera, ekimen ugari ari dira batasunetik eta elkarlanetik antolatzen. Harro egoteko moduko gazteria du Usurbilek, herrigintzaren pipperra eta gatza, herri giroaren

"USURBILGO GAZTERIA DEFINITZEN DUEN EZAUGARRI BAT BADA KONPROMISOA, HERRIGINTZARAKO ILUSIOA ETA AKTIBISMOA"

eta herri ilusioaren ernai. Poz handia ematen du herrian hainbeste gazte ikusteak etorkizuneko erronkei aurre egiteko proposamenak lantzen eta borrokatzen. Horregatik, ondo merezita daukate aurtengo Santixabeletako txupinazoa botatzeko ohorea".

Edabe magikoa

Behin ez, bitan hasi zituen jaiok Usurbilgo gazte mugimenduak. Lehenbizi udaletxeko balkoitik eta estreinakoz egindako herri kalejiraren ostean, txosnagunetik. "Independentziarako indarra" emango duen edabe magikoa ardatz hartuta ekin zieten jaiak Mikel Laboa plazatik. "Zapalduak izan arren garaitezinak egiten dituen edabea". Euskaldunak irudikatzen dituen edabe hau Mikel Laboa plazako erdigunean kokatuta zela, bere bueltako ikuskizun paregabea eskaini zuen Usurbilgo gazte mugimenduak ekainaren 29an, txosnen irekieran ospatu zuten bigarren txupinazoan. Sorgin talde baten laguntzaz, edabe magikorako sugarrak batu zituzten; herri honetako emakumeen askatasunaren, langileen borrokaren, euskararen eta luraren defentsaren aldekoak. Maitasuna, elkartasuna, elkarzaintza eta askatasuna bezalako osagaiak erantsi zizkieten, eta hortik sukaldatu zuten zuzenean lerrootan mintzagai dugun edabe magikoa. "Edan dezagun denok independentziarako indarra emango digun edabea", gonbita egin zieten ekitaldian bildutakoek. Haiekin guztiarekin kopak altxatuz eta dantza bizian ireki zuten txosnagunea eta ekin zioten hurrengo egunetarako antolatu zituzten ekimenei.

Artzi
 Patxi
 Iñiguez
 · bazkariak EGUNERO
 · afariak ostirala eta larunbata
 © 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
 TABERNA
 · PLATER KONBINATUAK
 · BOKATAK · PINTXOAK
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Jaietan izandako eraso matxista salatzen 2an egin zuten elkarretaratzea. NOAUA!

Eraso matxistak festa giroa eten zuten

Jaietan izandako eraso matxista salatu zuten txosnagunean Santixabel egunez.

Usurbilgo Udalak, Kafe Tertulia neska* gazteen talde feministak eta Xauxar txosna batzordeak urgentziatzko elkarretaratzea deitu behar izan zuten pasa den igandean, uztailaren 2an, jaietan ginela, festa giroa eten zuten eraso matxistengatik.

Belaunaldi ezberdinetako herritarrak bildu zituen urgentziaz deitu zuten mobilizazioak; tartean ziren baita udalbatza osatzen duten hiru talde politikoetako (EHBildu, EAJ eta PSE-ko) ordezkariak, baita aipatu moduan, herriko mugimendu feministako ki-

deak eta hainbat herritar. Guztiak, "Erasorik ez, erantzunik gabe" aldarria zeraman pankartaren bueltan bildu ziren. Hainbat minutuetako elkarretaratzea isila egin zuten. Antolatzaileek irakurritako adierazpenak eta amaierako txaloek hautsi zuten isiltasun hau.

Jaietan gertatutako erasoak salatu eta indarkeria matxista jasan dutenei babesa adierazi zieten mobilizazio honetan parte hartu zutenek, "bai emakumeari eta bai arreba babes-teagatik jipotua izan zen anaia-ri".

"Jaiak eta gauak ez dira geureak"

Elkarretaratzean nabarmendu zutenez, "ozen aldarrikatu nahi dugu, Usurbilen ez ditugula eraso eta jarrera matxistak onartzen eta erasotzaileak ez direla ongi etorriak gure herrian".

Festen atarian landu eta aurkeztu zuten protokoloa aktibatu behar izan zuten. Kasu honekin argi geratu zaie, "festa giroa ez da berdina izaten guztiontzat. Emakumeok fes-

"OZEN DIOGU, KALEAK, GAUAK, JAIK GUREAK ERE BADIRA"

"ESPazio ASKE ETA SEGURUAK EHORTZEA GUZTION ARDURA DA"

taz askatasunez eta berdintasunez gozatzeko eskubidea badugu ere, egunerokoak erakusten digu oraindik orain ez dela horrela". Argi denez, "oraindik ere jaiak eta gauak ez dira geureak. Irteten garen bakoitzean espazio horiek eskuratzeko borroka neketsua egin behar dugu, aisialdiko gune horiek askotan kontrako eremu bezala bizitzen ditugulako; keinuak, begiradak, halabeharrezko igurtziak, eskatu gabeko piropoak, eta azken finean, mutilen etengabeko lerde jarria espazio horien ezaugarri direlako. Hauxe ere bizitu behar izan zuten herriko hainbat neska gazteek ostiral eta larunbat gauean ere txosnan lanean ari zirela; era guztietako irain sexistak eta lerde jario nazkagarriak".

Indarkeriarekiko nazka agertzearekin batera, txosnagune askea aldarrikatu zuten denontzat. Honenbestez, "txosna batzordeak eta mugimendu feministak ez dituela ez eraso sexista, homofobo, xenofobo, lesfobo ezta bestelako eraso matxistarik onartuko. Horregatik, ozen esaten dugu, kaleak, gauak jaiak gureak ere badirela, jaietan ere gozatu nahi dugulako". Horretarako ordea, guztiok dugu zeregina. "Erasoei aurre egitea guztion lan pertsonal eta kolektiboa izango da, espazio aske eta seguruak ehortzea guztion ardura da", gogorarazi zuten.

Erasorik gertatuko balitz, "erantzun egingo dugu" iragarri zuten. Beste inork erasorik pairatuko balu, "gerturatu guregana" galdegin zuten. "Ez zaude bakarrik, erasorik ez erantzunik gabe!", aldarrikatu zuten.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, raziokak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-GAK egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Apirilean aurkeztu zuten Baterajotzea Mikel Laboa plazan, "Utopiak lehertzeraino!" aldarrpean. NOAUA!

Baterajotzeari lotutako herri aurkezpena

Uztailaren 14an 19:30ean Mikel Laboa plazan aurkeztuko dute, Usurbilen urria partean egingo den ekimena.

Euskal Herriko Mugimendu Feministako hainbat eragileek eta norbanakok zaintza sistema iraultzeko iaztik abian duten Denon Bizitzak Erdigunean izeneko prozesuaren harira, zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba deitu dute azaroaren 30ean. "Zaintza-sistema publiko eta komunitario baten alde atezko gara kalera, zaintza eskubide kolektiboaren alde. Eta hau guztion ardura da", gogorarazi dute deitzaileek.

Formaziorako eta saretzeko
Udalerrri honetan dagoeneko maiatzean egin zuten egun horri begirako asanblada osatu eta prestaketa lanak abiatzeko Kafe Tertulia neska* gazteen talde feministak deitutako lehen bilera Potxoenean. Haiekin eta prozesu honekin bat egitera deitu dute.

Greba orokor horri begira, gainera, Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea egingo da urriaren 13tik 15era Usurbilen. Apirilean Mikel Laboa plazan aurkeztu zuten ekimenari lotutako bi ohar jakinarazi dituzte azken asteotan. Batetik, Baterajotzerako izen-ematea zabalik dago eh-

"HERRITAR ORO GONBIDATU NAHI DUGU UZTAILAREN 14KO AURKEZPEN HONETARA, URRIAREN 13TIK 15ERA HERRIRA ZER DATORREN EZAGUTU DEZAN"

koneskagazteak.eus atarian, eta herri mailako aurkezpena antolatu dute uztailaren 14rako 19:30ean Mikel Laboa plazan.

Formakuntzarako eta saretzeko espazioa izango da Baterajotzea antolaketa lanetan buru-belarri dabilen Kafe Tertuliako kideen esanetan. Finean, Euskal Herriko neska* gazteen topagune gisa irudikatzen dute hitzordu hau, "Euskal Herri osoan feminismoaren inguruan antolatua dauden neska* gazteak elkarrekin, jakintzak partekatu, formatu eta ondo pasatzeko tresna". Horrez gain, militantzia eredu ezberdinak azaleratzeko ere baliagarritzat jotzen dute Baterajotzea. Borroka honetan modu jarraituan lanean ari diren eragileez gain, "Baterajotzea militantzia hori une puntual batean erakusteko eta asetzeko momentua ere bada. Egun zehatzetan antolatzen den jendearentzako ere oso aukera polita, esan bezala".

Nahieran bizitzeko deia

Eduki eskaintza zabala izango du hitzorduak. Parte hartzaile bakoitzak nahieran, "interesen arabera" antolatu ahal du urriko asteburu hori. "Aukera ederra izango da zure

interesetatik abiatuta, zure egitarau propioa osatzeko". Era berean, "izugarritzko indarra, ikusgarritasuna eman die herrietako talde feministei", azpimarratu dute.

Aurretik egin izan den ekimen honetan parte hartu dute baita Kafe Tertuliako kideek. "Borroka honetan aurrera jarraitzeko gogo eta indarra ematen du. Gainera, oso ondo pasatzen duzu". Elizondon egin zen aurreko edizioa, aurtengoan, aipatu moduan, Usurbilen.

Herritar oro aurkezpena gonbidatua

Euskal Herriko talde feministen sare horretan da Usurbilgo Kafe Tertulia. Baterajotzea antolatzeko azpiegituren batzordean dabil lanean. Lan handia suposatuko dien arren, "gogotsu hartu dugun erronka bat da". Azaldu digutenez, "Usurbilen eta Buruntzaldea mailan ekimena gizarteratzen eta harremantze lanetan gabiltza" eragile ezberdinekin. Haien parte hartzea sustatu nahi dute, baita Usurbilgoen artean ere. Argi diote, "herriak zeresan handia izango du" hitzordu honetan, "eskuhartze bat izango du Usurbilek". Horregatik deitu dute hilaren 14ko herri mailako aurkezpena. "Herritar oro gonbidatu nahi dugu aurkezpen honetara, herrira zer datorren ezagutu dezan". Bertan, "herriak nola eman diezaiokeen zerbait Baterajotzeari eta Baterajotzeak zer emango dion herriari ulertzeko momentua izango da".

Xehetasun gehiago, aurrerago

Uztailaren 14ko herri aurkezpenaren ondotik, xehetasun gehiago ematen jarraituko dute hurrengo hilabeteotan. "Aurrerago joango gara zalan-tzak argitzen", Kafe Tertuliatik ohartarazi dutenez. Momentuz, honako gonbita egin dute. "Neska* gazte asko apuntatuko dira Usurbildik. Animatu!".



Ekitaldiaren amaieran, familia argazkirako batu ziren dantzariak, txistulariak eta omenduak. NOAUA

Giro ederra sortu zen soka-dantzan

Euriak ez zituen Santixabel eguneko ekitaldiak zapuztu. Frontoian egin ziren soka-dantza eta lore zein salda banaketa.

Soka-dantza Joxe Martin Sargardia plazan egin ohi da. Goizean goizetik euria ari zenez, frontoira aldatu zuten ekitaldia. Udaletxeko plazak aterperik ez du eta zorua bus-

tita zegoenez, arriskutsua izan zitekeen dantzariarentzat. Azken orduan hartu zen erabakia. Jendeak hala ere, erruz erantzun zuen eta giro ederra sortu zen frontoian.

Legealdiko unerik zailena

Udal korporazioko kideek eskaintzen dute soka-dantza. Ia udalbatza osoak hartu zuen parte aurtengoan. Batzuk oso fin aritu ziren baina beste batzuk lanak izan zituzten. Batzuentzat zein besteentzat legealdiko une zailenetakoa izan ohi bada ere, frontoiaren bibak eta txaloak jaso zituzten den-denek.

Soka-dantzaren amaieran, ikusmiran dauden herritarrak plazara ateratzeko ohitura

dago. Agurtzane Solaberrieta alkatea alaba batekin aritu zen eta Patri Romero zinegotzi sozialista berriz, semearekin. Gorka Otxoa zinegotzi jeltzaleak aldiz, Estitxu Alkorta gonbidatu zuen plazara. Lasarte-Oriako EAJko kidea, Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria da.

Iñaki Urkia eta Aitor Egileta omendu zituzten

Iñaki Urkiak eta Aitor Egiletak urteak eta urteak egin dituzte jaietako soka-dantza irakasten. Aurrerantzean Orbeldi Dantza Taldea arduratuko da zeregin honetaz. Santixabel eguneko ekitaldian, Iñaki eta Aitor omendu zituzten.

Iñaki iazko abuztuan zendu zen eta bere alargunak jaso zuen oroigarria, eta frontoian bilduta zeuden guztien txalo zaparrada.

Soka-dantza bukatu eta berehala, lore eta salda banaketa hasi zen. Txalotzekoa Hurbilagokoek egindako lana.



Udal zinegotzi bakoitzak gonbidatu bat atera zuen plazara.



Aitor Egileta eta Iñaki Urkiaren alarguna, omendu berritan.



Soka-dantza bezalaxe, lore eta salda banaketa ere frontoian egin zen.



Beste behin ere, Hurbilagok lan handia hartu zuen lore eta salda banaketan.



Jai giroa herriratzten eta festei harrera egiten lehenak izan ziren. Oilasko biltzaileek ekarri ziguten festa egunotarako irrika.



Kaxkoa inguratu zuten oilasko biltzaileek, dantza giro bizian.



Gazteak izan dira aurtengo jaien hasierako protagonistak.



Euskal Herri askerantz, edabe berezia prestatu zuten gazteek jaien hasieran.



Zirriborro tailerrekoek urteko lanketa ikusgai jarri dute egunotan Sutegin.



Estreinakoz egindako herri kalejirak belaualdi ezberdinak batu zituen.



Bertsio Gauak euripean kantuan eta dantzan jarri zuen jendetza.



Koreografia berri batekin egin zioten harrera Umeen Egunari.



Puzgarrietan jauzika primeran pasa zuten eteko txikienek.



Kanporaketarik gabeko aulki-jokoan elkar laguntza nagusitu zen.



Erronkako txirristan blai baina pozik amaitu zuten gazteek.



Ginkanan denetarik kirol jolasetan parte hartu zuten.



Erronkan talde jolasak nagusi, elkarrekin parte hartu zuten.



Belaunaldi gazteena eta helduena izan ziren txixtu treneko lehen bidaiariak.



50 urte bete dituen Zumetaren murala osatu zuten ginkanakoeak.

IRUDITAN



Askatasuna plazako aterpea bete zuten gazte bazkarikoek.



Ur puzgarrietan gozatu ederra hartu zuten gazteek.



Gazte Eguna dantza batean jartzera etorri ziren Distopia taldekoak.



Haurren Eguneko ekintzetan indarberritzeko, txokolate gozosa askaldu zuten.



Herri kirolen desafioan egin zuten ahaleginaren irudia.



Ane Zinkunegi eta Udane Ostolaza harrijasotzaileak, herri kirolen desafioan.



Esnal anaiak "arerio" herri kiroletako aizkolaritza proban.



Niko Etxart, frontoian eskaini zuen kontzertu betean. ARGAZKIA: @XINGOLAUSURBIL



Askatasuna plazako bolatokia biziberritu dute aurtengo jaietan.



Orbeldiren dantzari txikienek frontoiko publikoa liluratu zuten.



Urtean zehar landutakoaren erakusleihoa, Orbeldiren jaiotako emanaldia.



Udako emanaldien erronda betean da Orbeldi dantza taldea.



Gazte koadrila bat, ehunka lagun batu zituen zikiro janean.



Sokamuturreko animaliengandik ihesi lasterkariak.



Mexikortxo talde nafarrarekin, rantxerak uztailaren lehenean txosnagunean.



Jendetza Mihiseren larunbat gaueko kontzertuan.



Urtez urtez hazten doa, jaietako larunbatetako gautxorien kopurua. Igande goizean ateratako "gaupaseroen" argazkia duzue honako hau.



Esna-deiak, soka-dantza girotzea... Lan handia egin dute herriko txistulariek.



Triku taldea kalejiran ibili zen Santixabel egunean. Euriak ez zituen kikildu.



Pilota txapelketako finalean Enrike Huizi omendu zuten

Egin duen ekarpen oparoagatik Enrike Huizi omendu zuen Pagazpe pilota elkarteak uztailearen 2an. Talde kide izandakoen eskutik merezitako oroigarria jaso zuen. Guztia, aipatu moduan, mende erdia

bete duen Usurbilgo Pilota Txapelketako finalen amaieran izan zen. Finalistak sarituta amaitu dute aurtengoa. Kadeteen mailan, etxeokak nagusi. Oreretako Eple taldeko kideak nagusien mailan. Erri-

fa zozketa ere egin zuten; jokoan jarriak zituzten bi sariak jaso dituzte jada zenbaki saritua eskuartean zutenek.

Kadeteen arteko finala:

Aimar Alejo- Enaitz Errasti (Pagazpe) 22
Aiert Aburuza-Ander Pagola (Añorga) 14

Nagusien arteko finala:

Lorentzo Orbegozo-Unai Albeniz (Orio) 19
Egoitz Olaizola-Mikel Aranguren (Eple-Orereta) 22

Tanto sarituak:

Kadete mailan:

- Tanto politena: Aimar Alejo.
- Tanto hoberena: Enaitz Errasti.

Nagusi mailan:

- Tanto politena: Lorentzo Orbegozo.
- Tanto hoberena: Egoitz Olaizola.

Errifa zozketa:

- Urdaiazpikoa: 4012.
- Mariskada: 4080.



Euskal abestiak ardatz zituen runba poteo mozorrotua egin dute jaiotan.



Alaia Martin, Eli Pagola, Sustrai Colina eta Igor Elortza aritu ziren bertsoan.



Igel eta toka txapelketak jokatu ziren aste hasieran aldi berean Artzabalen.



Gogotik lehiatu ziren Artzabalgo toka txapelketan.



Kolore Festara gazte ugari batu ziren.



Kolore Festa ekitaldiaren amaieran opari zozketa egin zuten.



Atxega jauregian batu zen belaunaldi helduena, jubilatuen bazkarirako.



Lehia bizia izan zen mus lehiaketan. Irudi honetan dituzue txapeldunak.



Jaietako azken egunean, Olanoeña plaza puzgarriekin bete zen.



Gure Pakea Dantzan taldekoek ikuskizun aparta eskaini zuten Artzabalen.



Puro Relajo taldeak dantzan jarri zuen Artzabalgo plaza.



Txosnaguneari usain ezinhobea zerion festen amaierako paella janean.



Erraldoi eta buruhandien taldea. Aurtengoan kareta itxuraz berritu dituzte.



Joaldunak saioa amaitu berritan harrapatu genituen. Nekatuta baina pozik.



Hasi bezala agurtu zituen jaiak gazte mugimenduak, abesten eta dantzan.



Jaietako zaindaria sutan desegin zen ueña.



Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko egoitzan, diploma eta domina jaso berritan.

Koro Segurola 'Adiskide Numerario' izendatu dute

Usurbildar filologoak San Joan Egunez jaso zuen izendapena, Azkoitian egintako ekitaldi batean.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek Adiskide Numerario izendatu du Koro Segurola. Euskal Filologian lizentziaduna, ez da tamaina honetako izendapena jasotzen duen lehen aldia. Euskaltzain urgazle ere bada. Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako zuzendaritzako kidea, eta 2017tik Egan literatura aldizkariaren zuzendaria. Euskaltzaindiaren egitasmo ezberdinetan parte hartzeaz gain, ikerketa-lan ugari egin ditu.

Horrelakoetan ohikoa den moduan, izendapena jasotzeko ohorea izan duen adiskide berriak sarrera-hitzaldi bat eskaintzen du. Koro Segurolak 'Letra Ederrak eta euskara Euskalerrriaren Adiskideen egitasmoetan' izeneko ikasgaia aurkeztu zuen Azkoitiko Intsausti jauregian, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko egoitzan bertan.

Egan aldizkariaren urteurrena ospatu zuten bide batez

Ekitaldia ez zen hor amaitu. Egan literatura aldizkariak 75 urte bete ditu eta Koro Seguro-laren izendapena argitalpe-

naren urteurren borobila ospatzeko baliatu zuten. Juan Luis Zabala idazleak eta Egan aldizkariako kideak literatura sorkuntzaz jardun zuten.

Usurbilgo txistulariek girotu zuten ekitaldia

Musikariek edertu zuten ospakizuna. "Hasieran eta hitzaldi batetik besterako tartean, Usurbilgo nire kuadrillako txistulariek jo zuten", Koro Segurolak pozarren azaldu digunez. Roman Manterola, Iñaki Mujika eta Jexux Pagola bertaratu ziren, "eta atabala jotzen Iker lezoarra aritu zen".

Josu Okiñena piano-jotzaileak eta elkarteko adiskideak eta Mainer Ronquete sopranoak aldiz, 'Maitia nun zira' abestia eskaini zioten.

Domina eta diploma

Luis Elicegui Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko lehendakariak eta Iñaki Azkune Mendia Adiskide Numerarioak Koro Seguro-laren izendapenaren berri eman zuten ofizialki. Bi kide hauen eskutik jaso zituen domina eta diploma.



Makurturik dagoen ilaran, Aitor ezkerretik hasita lehenengoa da. NOAUA

"NOAUA!ko ekonomialari ofiziala zen"

Ekainaren 23an zendu zen Aitor Pikabea Atorrasagasti, 53 urterekin. NOAUA! Kultur Elkartearen sorreran, bere ahalgina funtsezkoa izan zen.

"Beti barre txikiarekin"

"Bere umore ona gogoratzen dut". Idoia Torregarai NOAUA!-ko lehendakaria da, UEUko komunikazio arduraduna eta umoregilea. 90eko hamarraldiaren erdialdean "herritar talde hark erakutsi zuen grina eta talde-lana miresgarria izan zen", esan digu Torregarai. "Eta Aitor gure ekonomialari ofiziala zen".

Ainhoa Azpiroz HIK Hasiko eta Hazi Heziko erredaktorea

ere NOAUA!ren sorreraren lekuko zuzena izan zen. "Batzuk hitzekin jolasten genuen; Aitorrek zenbakiarekin". Azpirotzek azaldu digunez, "beti barre txikiarekin, i-aren gainean puntua jartzen zuena zen Aitor, baina zenbakiaren arloan, alderdiekonomikoan". Egonkortasun ekonomikoak lortzea garrantzitsua zen proiektuak bizitza luzea izan zezan, "eta Aitorrek ongi kokatu zuen NOAUA! Sendotasuna eman zion".

Ainhoa Azpirotzek dioen moduan, "garai hartan, euskara eta kultur elkarteen helburuetako bat zen langileek lan kontratuak edukitzea, eta gurean Aitor arduratu zen horretaz".

NIRE USTEZ



GARI UDABE KAZETARIA

Taldean lan egiten zekien Aitorrek

NOAUA! proiektuan asko sinetsiz, ilusio, gogo eta intentsitate handiz lan egin zuen hura aurrera ateratzeko. Zenbakiaren lagunik onenenetako bat izan genuen bidelagun, zalantzarik gabe.

Taldean lan egiten zekien Aitorrek. Behar genituen argibide guztiak ematen zizkigun hitzekin zenbakiarekin baino hobeto moldatzen gineno. Beti uzten zigun garbi berak zer bide hartuko zukeen. Eta kontrakoa erabakita ere, sekulan ez zuen hitz edo begiratu txarrik.

Oso gogoan dut, bilerak amaitu eta kalean, zurito batzuk hartuz, zenbat gozatzen zuen istorioak kontatzen. Beti ateratzen zuen patrikatik gaiarekin lotutako pasadizoren bat. Askotan, oso berea zuen umoretik tirata gainera.

"Orain distantzia luzeko lasterketak ditut gustukoen"

GARAZI ARTOLA KORRIKALARIA

Lasterketa herrikoietan hasi eta mendi-lasterketei heldu zien beranduxeago. Kirol jarduna eta amatasuna nola uztartzen dituen kontatu dizkio NOAUA!ri.

Mendiko lasterketak oso gogorak dira. Denbora eta energia asko eskatzen dute eta fisikoki asko eman beharra dago. Lasterketa bat ondo amaitzeko non dago sekretua?

Orokorrean, garrantzitsuena benetan gustatzea da. Hortik aurrera dena errazago etorriko da. Entrenamenduak gusturago egiten dira gustuko duzun kirolean eta motibazio gehiagorekin hartzen dira. Lasterketak ere gogoz hartzen dira eta pixkanaka hobetu egiten da. Betiere errazago da norbait alboan izatea entrenatzeko eta animatzeko ere. Batzuei bakarrik entrenatzea gustatzen zaie, baina nik nahiago dut norbaitekin joan. Mendian orduak aurrera egin ahala, dena delakoa gertatzen dela ere, hobe da alboan norbait izatea.

Noiz hasi zinen korrika?

Nire gurasoak ez dira oso kirolariak eta kirol askorik egin gabea nintzen unibertsitate garaia arte. Unibertsitatean korrika hasi nintzen, ikasketetatik alde egiten lagunduko zidan zerbait lasterraren bila. Orduan, hasi



"Unibertsitate garaian hasi nintzen korrika". NOAUA

nintzen korrika. Unibertsitateko azken urtean Erasmusera joan nintzen eta han hasi nintzen kirol gehiago egiten eta korrika. Behin itzulita, lehen lasterketak egiten hasi

nintzen, baina ez mendian. Garai haietan Pirinioetara joaten hasi nintzen eta mendia maitatzen ikasi nuen, eta orduan hasi nintzen korrika eta mendia uztartzen. Korrika

eginda, mendi gehiago ikus-teko aukera nuela jabetu nintzen eta mendiaz gozatzeko beste aukera bat iruditu zitzaidan.

Nolakoak dira mendi lasterkari baten entrenamenduak? Zuk baduzu errutina jakin bat?

Lehen lanetik atera eta gimnasia joaten nintzen ariketak egitera hala behar zenean, eta besteetan mendira joaten nintzen. Orain haurdun nago bigarren aldiz, eta horrek erabat aldatu du nire egunerokotasuna. Amatasunaren ondorioz, lehen arratsaldeko 6etan egiten nuena orain goizeko 6etan egin behar dut; ahal dudanean eta ahal dudan moduan. Amatasunaren ondorioz, ez dut mendia utzi eta nolabait moldatu egin naiz. Horren arrazoi nagusia nire bikotea izan da. Hark oso ondo ulertzen du egoera, bera ere korrikalaria baita. Elkar motibatzen dugu eta oso gustuko dugunez, ez dugu galdu. Lehen lasterketetarako entrenatzen nuen, orain lasterketak nire entrenamendu bilakatu dira. Lasterketa nik egiten dudanean, aita geratzen da umearekin, eta alderantziz. Egin dugu lasterketaren bat biok batera haurra aitona-amonekin utzita, baina ez da ohikoena.

Distantzia ezberdineko probak daude mendi lasterketen zirkuituan. Zein da erosoena egiten zaizuna?

Uste dut ez daukadala distantzia bereziki gustukoena dudanik, baina eboluzionatu egin dut azken aldiak eta lasterketa distantziak luzatzen joan naiz. Orain 30km eta maratoiak ditut gustuko. Ultretako pausoa eman nahi

 943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

 **USURBIL DÖNER KEBAB**
 843 675 265

603 609 183
 USURBIL DÖNER KEBAB  USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

ARRANDEGIA
PELLO
 9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil


→ nuen orain, baina haurdunaldiaren ondorioz ez da posible horretan astea. Haur batekin orain arte moldatu gara, baina birekin ikusi beharko dugu.

Ama zarenetik, asko aldatu al zaizkizu entrenamendu eta lehiaketarako errutinak?

Bi haurdunaldi oso ezberdinak izaten ari naiz. Lehenengo haurdunaldiarekin 7. hilabete arte aritu nintzen korrika eta 7. hilabete hartan lasterketa bat egin nuen 12 kilometrokoa mendian. Mendiak erori eta min hartzeko arrisku gehiago ditu kalean korrika egitea baino. Zorte ona izan nuen, oso haurdunaldi ona tokatu zitzaidalako. Oraingoan, ordea, askoz nekatuago nago eta gorputzak ez dit eskatzen kirola egiterik. Joan nahi dut, baina nire gorputza ezezkoan dago. Lehenengoarekin askoz aktiboago nengoen. Oraingoan, berriz, korrika egitean mina sentitzen dut edo ez naiz eroso sentitzen. Hori jende askori entzun nion lehenengo haurdunaldian nengoela eta horretaz salbu nengoela uste nuen, baina oraingoan hori gertatzen ari zait. Bi haurdunaldi oso ezberdin. Lehen erditzearen ondoren, 5 bat hilabeteetan lasterketetan partehartzen hasi nintzen. Oso errekupe-raketa azkarra eta erraza izan nuen. Oraingo honetan zer izango den batek daki.

Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikit. Noiz egin zenuen mendi lasterketen aldeko apustua?

Ez nuen kirolik egiten lehenago. Nire bizitza musikari lotuago zegoen kirolari baino. Hirugarren LHn saskibaloian



Santa Cruz Extreme 33 km-ko lasterketa irabazi zuen iaz. SANTACRUZEXTREME.COM

ibili nintzen, baina ia gogoratu ere ez naiz egiten horretaz.

Hainbat sari, hainbat podium egin dituzu. Epe erdira, zein da zure helburua?

Ultrak dauzkat buruan. Ez dakit datorren urtean izango den edo aurrerago. Bi umeekin nola moldatzen garen ikusi beharko dugu.

Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa egin nahi nuen joan zen urtean baina ezin izan nuen parte hartu. Lasterketa hori daukat buruan oraindik ere.

"ULTRAK DAUZKAT BURUAN. EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKA EGITEKO ASMOA DUT, DATORREN URTEAN EDO AUERRERAGO. EA BI UMEREKIN NOLA MOLDATZEN GAREN"

Lehiakortasun handia dago mendi lasterketetan ala, alderantziz, lagun giroa da nagusi zuen artean?

Lehen lagun eta mendi giro zoragarria geneukan. Azken urteetan nabaritu dut aldaketa zentzu horretan. Geroz eta lehiakortasun gehiago dago kirol honetan sartzen ari den jendearen ondorioz. Jende asko ari da sartzen eta oso ezberdina. Pena ematen digu horrek mendizaleoi. Hor dago ezberdintasun nagusia; batzuk mendizaleak gara eta besteak atletak dira.

"LEHEN LAGUN ETA MENDI GIRO ZORAGARRIA GENEUKAN. AZKEN URTEETAN ALDAKETA NABARITU DUT. GERO ETA LEHIAKORTASUN GEHIAGO DAGO KIROL HONETAN"

Eta etorkizunean, lehiatik erretiratzen zarenean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Mendian korrika irudikatzen dut neure burua 50 urterekin. Geldialdi txiki bat egin beharko dut nire alaben lehen urte hauetan ziur aski, baina pixka bat hazi bezain pronto helduko diot mendiari. Bikoteak ere asmo hori du, beraz, motibazio faltarik ez dut uste izango dugunik. Alabak ere mendira eramango ditugu eta haiekin gure zaletasuna partekatuko. Guraso mendizale batzuei seme-alabak ez zaizkie mendizaleak ateratzen, eta alderantziz, ni ez ninduten ia batere mendira eramango gurasoek, baina mendizalea naiz. Guk transmisioa egingo diegu eta ea eurek nola erantzuten duten.

Laburrean

- Zenbaki bat:** 10.
- Kolore bat:** Turkesa.
- Kirolari bat:** Onditz Iturbe.
- Txapelketa bat:** Euskal Herria Mendi Erronka.
- Film edo telesail bat:** 'Entrevías'.
- Liburu bat:** -.
- Abesti bat edo talde bat:** Neomak.
- Sare sozial gustukoa?:** Instagram.
- Usurbilgo txoko bat:** Andatza.
- Santixabelak ala Sagardo Eguna?** Sagardo Eguna.
- Oporretarako toki bat:** Pirinioak.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ARANKA BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL



Talde gorria izan da aurtengo txapelketa. Lehia bizia izan zen ordea. NOAUA

Erakustaldi bikaina, herri desafioko lagunaren eskutik

A ze ikuskizuna eskaini zuten ostiral arratsaldean. Zuten onena eman zuten, txinga, trontza, aizkora, korrika, giza-proba edota harrijasotze probetan.

Bi talde osatu zituzten; talde urdina eta gorria. Eta gorria izan da aurtengo txapelketa. Hemen parte hartzaileen zerrenda:

- Harrijasotzen: Ane Zinkunegi, Udane Ostolaza.
- Giza proban: Imanol Zaldua, Gabi Sarasola, Iurgi Mendiluze, Iñaki Portullarrume.
- Aizkoran: Haritz, Jon Esnal.
- Txingetan: Ibai Orena, Jon Irazusta.
- Trontzan: Julen Uli, Beñat Bereziartua, Haritz eta Irati Holgado.
- Korrikan: Borja Pulido, Ekiñe Zalakain, Iñaki Añorga, Izadi Azkonobieta.



Argazkian, sarituak eta antolatzaileak.

Jokalari oso trebeak aritu ziren toka eta igel txapelketetan

Gure Pakeak antolaturiko txapelketetan trebezia handiko jokalariek parte hartu zuten.

Toka txapelketa:

- 1.- Eliberto Carramiñana.
- 2.- Manolo Guadix.

Igel txapelketa:

- 1.- Luis Cuerdo.
- 2.- Jose Fernandez.



NOAUA

Jon Zumeta eta Jon Joanes nagusitu ziren binakako pala txapelketan

Ekainaren 29an Santixabeletako pala txapelketako finala jokatu zen. Bi bikote hauek aritu ziren aurrez aurre: Imanol Agirretxe eta Beñat Lorenzo batetik, Jon Zumeta eta Jon Joanes bestetik. Azken hauek nagusitu ziren. 22-10, azken emaitza.



NOAUA

Pala egokituko finalean, Leire Troitiño eta Mikel Merino bikotea izan zen garailea

Lau bikotez osatutako ligaxka jokatu zuten lehenbizi: Aingeru Semperena-German Elkoro, Manu Quesada-Asier Navaridas, Leire Troitiño-Mikel Merino eta Beñat Lizaso-Joseba Lasa. Finalean Troitiño-Merino gailendu zen.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elkagariak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bitziteko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako: 636 711 514.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta bokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inmobiliarian 943 35 35 34

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Astean pare bat arratsaldez adineko emakume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. 653 018 132.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabiltza. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Ko-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

txea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710 Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680483164.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, Olarrondon. 626 686 036.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketak egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. 644 619 358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 07	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 08	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 09	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 10	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astearte, 11	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 14	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Larunbata, 15	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak izaro!! Etxeko sorgin txiki-handienak 4 urte bete zituen ekainaren 28an. Jarraitu urtez urte eguzkiari hain alai eta goxo ematen bueltak. Asko maite zaitugu, maitia!

HILDAKOAK



Jose Luis Arregi Aizpurua
Ekainaren 28an hil zen, 90 urterekin

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteok; hiru bide dituzu NOAUaren bidez zorientzeko:

Internet eta papera

noaua.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://noaua.eus/zorionagurra/> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta dagokion NOAUA astekarian. Oharra: astelehen arratsaldetik aurrera iristen direnak hurrengo astean plazaratuko ditugu.

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria/auzoa, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz NOAUaren bulegora (Bordaberri 3, behe) edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 06

USURBIL Kirol jarduera

Kirol egokituari lotutako jardunaldia Urbilen. Egitaraua, aldameneko albistean. *Egun osoan, Urbilen.*

USURBIL Kirol jarduera

3x3 futbol jardunaldia. Egitaraua, aldameneko albistean. *17:00-20:00, Urbilen.*

OSTIRALA 07

USURBIL Kirol jarduera

C.D. San Marcial taldearen jardunaldia Urbilen. Egitaraua, aldameneko albistean. *10:00-13:00, Urbilen.*

LARUNBATA 08

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago, 650usurbilbizi.eus atarian. *12:00-13:00 Sutegin.*

IGANDEA 09

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan), Informazioa: 650usurbilbizi.eus atarian. *12:00-13:00 Sutegin.*



Uztailaren 6an eta 7an, hainbat jarduera iragarri dituzte merkataritza-gunean.

Kirol egokitua ezagutarazteko ekimena Urbilen

"Futbola eta inklusioa ekitaldi bakar batean batu nahi ditugu", Urbilek aditzera eman duenez, "eta kirolak ematen dituen balioak nabarmendu". Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin (GKEF) eta C.D. San Marcial taldearekin batera antolatu dute kirol jardunaldi hau eta merkataritza-guneko aparkalekuetako batean egingo da.

Futbol partida, makuluekin

Uztailaren 6an, sentsibilizazio-jardunaldi bat egingo dute Urbilen. Makuluekin egokitutako futbol partida bat jokatu dute. Ez hori bakarrik. Izaera bereko beste jarduera batzuk ere iragarri dituzte:

saskibaloia aulkian, itsuen zirkuitua, gorpil-aulkiko slalom-a eta ezgaitasun desberdineko jolas kooperatiboak, besteak beste.

3x3 futbol zelai bat Urbilgo aparkalekuan

Eta uztailaren 6an, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, 3x3 futbol zelai bat prestatuko dute Urbilgo aparkalekuan, "haurrek, gazteek eta helduek parte har dezaten".

Uztailaren 7an ostirala, C.D. San Marcial taldeko kimuen eta hezitzaileen txanda izango da. Goizeko 10.00etatik 13.00etara, Urbilen egingo diren jarduera ezberdinetan hartuko dute parte.

Odol-ematea

Astelehenean, hilak 10, odol-ematea Udarrregi ikastolan, 16:30etik 20:30era.

Baldintzak:

- Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.
- 18-65 urte artean izatea.
- 50 kilotik gora pisatzea.
- 12 urte baino lehenago hepatitisa izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman dezakezu.
- Emakumezkoek urtean gehienez hiru aldiz eman dezakete odola, gizonezkoek gehienez lautan. Odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tartea igarotzen utzi beharra dago.
- Deitzailea: Usurbilgo Odol Emaileen Elkartea.

Informazio gehiago:

donantesdesangre.eus web orrialdean.



ARTZABAL

 BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

· EGUNEKO MENUA

 · KARTA

 · RAZIOAK

 · HANBURGESAK

 · BOKATAK




943 36 91 39

Zuen publizitatea hemen

 943 360 321

publizitatea@noaua.eus

noaua
jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram
twitter noaua

www.noaua.eus

USURBIL
OPTIKA

4 Urteko Garantia

Interes Gabeko Finantzaketa
*Banketxeak onartzean

Entzumen azterketa
DOAN

Entzun telebista eta mugikorra zure audifonoetan

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2023

Uztailak 14, OSTIRALA
FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO
BEGIKO TXERTAKETA.

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

SARRERAK: aldeztu aurretik usurbilkultura.eus plataforman edo www.alkartasuna.eus

TXERTAKETA PRAKTIKAK BERTAN EGINGO DIRA

ALKARTASUNA
Usurbigo Baseritarraren Kooperatiba

Sagardoaren Unibertsitatea

Sagarki
Sagarki "Fruita de Pasa"


Sagarra eta Sagardoaren Kultura eta Turismoa **BIZI SAGARDOA**

Usurbigo Urdia

Edertu zaitetz!

LASER DIODO LightSheer™

- ERAGINKORRA
- SEGURUA
- ILEA BEHIN BETIKO EZABATZEN DU
- AZAL BELTZARANETAN EGIN DAITEKE



snar
ESTETIKA

@enarestetika · enarestetika.com

943 571 680 | 620 852 875 · Muna Lurra 2, behean, Usurbil

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

Transforma, esculpe, reafirma
Crema Premium Sculptor

Consegue el ritual completo de Cepillo Corporal y Crema Premium Sculptor por un precio especial de 49,50€.

**UDARAKO...
ZURE AZALA ETA
GORPUTZARAKO
TRATAMENDU
BERRIAKI!**

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Arkeneko produktu eta teknikak!

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951